

URDAIBAI

2018
zenb 16
.....

©MAGAZINE

ONGI ETORRI
ZABALIK

| BUSTURIALDEKO PORTUAK

| ESTHER KORTA, AMERIKETAKO ISTORIOAK

| EREÑOZAR, HISTORIA TXUNDIGARRIA

| GORGONIO RENTERIA

| MAKILAOA

| SAN SILVESTREKO KROSA

1/6

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazlea da: 1/6 zenbakiak arrisku bikiagoa adierazten du, eta 6/6 zenbakiak, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Erakundearen Gordailuak Bermatzeko Funtzari abikita dago. Funtz hori umiaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusita dago. Funtz horrek gaur egun gehienez 100.000 euro bermatzen ditu gordailugile bakoitzeko.

EZ DUT KOMISIORIK NAHI

Gazte Kontua
eta K26 txartela
mantentze-
kuotarik gabe*

**Ikusi gazteentzako
onura guztiak
kutxabankkorner.eus
webgunean**

Kutxabank
EUSKARALDIArekin

**EUTSI NAHI
DUZUN HORRI**

**KUTXABANK
KORNER**

**KUTXABANKEN
18/30
ESPAZIOA**

ESKERRIK ASKO

Urdaibai Magazineko zenbaki honek aldizkariaren laugarren urtea zarratu egiten dau. Asmo handiko proiektua da hau, pasinoaz sortuta eta bere lurraldea maite dauenaren apaltasunetik planteatutakoa, beraz hobetzeko asmoagaz. Ekarpinak egiteko oinarritzkoa da ezagutza. Geure ekarpen txikia informazioaren aldetik egiten dogu. Eskualde berezia garela nabarmendu gura dogu, ekintzailea; historikoki munduari zabalik egon dana, batez be itsasotik; Bizkaian ezinbestekoa dan historiagaz; izaera emoten dauen ondare kulturalagaz eta balio handiko inguru naturalagaz, etorkizuna eraikitzeke eragile. *Urdaibai Magazine* hau guztia kontatzea gura dogu. Argitaratzea erronka bat da. Paperezko edizioa Busturialdeko herri guztietan dago (erakundeak eta establezimendu pribatuetan). Bere web orria sortu egin genduan (www.urdaibaimagazine.eus) aldizkaria mundu digitalera eramanez. Gaur aldizkariaren arrakasta zuokaz partekatu gura dogu. Datuen arabera *Urdaibai Magazine Onlinek* interes handia piztu egiten dau. Eskualde mailan ezezik mundu guztira heltzen da, Europa, Amerika, Asia, Ozeania. Lau kontinentetako *irakurle digitalak* dauzkagu. Estatistiken arabera *online* egiten dan irakurketa 4 minutu eta 50 segundukoa da, ohiko egunkari edota aldizkari orokorrik ezagunenaren batez bestekoaren zertxobait gainerik. Animatzen gaituen beste datu bat sistemak erregistratutako deskargen zenbatekoa da. Deskargatutako 30.500 aldizkari gairiditu doguz. Ez dago zalantzarik, eskualde berezia gara.

ESKERRIK ASKO ETA URTE BARRI ON!

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.com

tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenen emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoiti, 15, bajo
Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com

www.nuevaeuropa.eus

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.



AURKIBIDEA



ERREPORTAJEA 04

HERRIKO DENDAK
zabal - zabalik



VISIT URDAIBAI 08

BUSTURIALDEKO PORTUAK



ELKARRIZKETA 12

ESTHER KORTA,
Ameriketako istorioak



LEKUKO 16

EREÑOZAR,
historia txundigarria



KALERIK KALE 18

GORGONIO RENTERIA,
Elantxobetik mundura



SAL TSA-PORRU 20

MAKAILAOA,
betidanik saltsa danatan



BERDEAN 22

GABONETAKO ARBOLAK
naturalak ala artifizialak?



BETI-JAI 24

SAN SILVESTREKO KROSA,
Arin! urtea amaitzeaz dago!



ZABAL-ZABALIK

Egunero geure herrietako dendek atek zabaltzen dabez adoretzu, kalidadea, hurbiltasuna eta bezeroarekiko arreta ona eskainiz lehiakorrak izateko, baina galzorian ta babesbarik daudela sentitzen dabe. Familia ordena barriak, erosketa ohitura barriak, merkataritza digitalak eta krisi ekonomikoaren azken buztakadak etxeko merkataritzaren, gertukoa, Busturialdeko herrien merkataritzaren iraupena arrisku larrian jarri dabe. Bermeoko eta Gernika-Lumoko merkatariek, herri bi hauek eskualdeko herri nagusiak izanik, bere denda txikiak dinamizatzeko lan gogorra egiten dabe. Denda txikiek herrietako kaleak bizirik mantetzen dabez eta lehiakorrak eta errentagarriak izatea da helburua, euren esentzia galdu barik.

Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioaren (CECOBI) esanetan kontsumitzaileen erosketa ohiturek, merkataritza elektronikoak eta online dendek arriskuan jartzen dabe gertuko merkataritza. Herrietako denda txikiei laguntzeko neurriak hartu ezean, negozioen itxiera historiko bat aurreikusten da.

Kontsumo joeren aurrean arduratuta dagoz geure dendak eta analisi sakon baten beharra argi eta garbi ikusten dabe. Hau da, denda txikien neurriko irtenbidea bilatu behar da, geure herrietako dendak aurrera egin ahal izateko. Bermeon, Berton, Merkatarien Elkarteak horrela ikusten dau egoera: *"nahiko eskasa da situazioa."*

A
rratzu

INNOVACIÓN
FUTURO
PROGRESO

Bizkaia
azpiegiturak



**ELKARTEGI
LANGUNEA**



LOS INTERESADOS

en establecer su proyecto empresarial en Arratzu Elkartegi Langunea" pueden contactar aquí:

azpiegiturak@bizkaia.eus/ Tel. 946 073 700

"Ez dakit jendeak gutxiago erosten dauen, interneten erosten dauen edota merkatal zentru handietan erosten dauen, baina urte asko daroaguz krisi egoera honegaz eta gero eta txarragoa da. Krisi ekonomikoa Estatuan hasi zanean hemen polito ibiltzen ginan. Guk krisi ekonomikoa beranduago igarri dogu baina hemen jarraitzen dogu". Bermeo bezalako herri baten denda txikien egoeraren erakusgarria, "mugimendurik ez dagoela da. Ez da ikusten jendea erosten eta hau kezkarria da. Egoera arraroa da. Igaz ez zan izan urte on bat baina aurton txarragoa da".

Gernika-Lumon egoera antzekoa da. Gernikako Merkataritza Elkartuak sektorea indarbarritzeko estrategia dinamikoagaz lan egiten dau. Gaur egungo merkataritza errealdidean bizirik mantentzeagatik pribilegiatuak dirala uste dabe: "Gernika-Lumoko merkataritzak, beste leku batzutatoko merkataritza bezala, krisiaren eragina pairatu dau. Orain, esfortzu handia eginez badoa apurka-apurka burua ataritzen. Geure herrian eskualdeko merkataritza dentsitate handiena daukogu eta horregatik zorionekoak gara, gero eta teknologikoagoa dan inguru honetan bizirik mantentzen garenetakoak garelako", nabarmendu dau Naira Iturbek, GMEko gerenteak.

Denda txiki, erronka handi

Teknologiak eskeintzen gaituen salerosketa anonimoaren aurrean, denda txikiek argi dauke euren indarguneak zeintzuk diran: hurbiltasuna, bezeroarekiko harremana eta produktuaren zein zerbitzuaren kalidadea. Herriko dendek kontsumitzaileen beharizantara egokitutako gune komertziala eskeintzen dabe, "ezin dogu zuzenean lehiatu merkatal gune handiekaz edota internetegaz, baina bestelako zerbitzua emoten dogu. Zuzeneko aholkularitza zerbitzua emoten dogu, bezeroa mimau egiten dogu, zaindu egiten dogu, hurbilagoak gara. Merkatal denda handietan beharginek askotan ez dabe ezagutzen ondo sektorea, egun baten lurrindegian dagozelako eta hurrengo egunean bitxi-denda baten dagozelako,

ez dauke espezializaziorik. Geure esperientzia eta profesionaltasuna dira geure bereizgarriak", azaldu dau Marian Bernardok, Berton, Bermeoko Merkataritza Elkarteko kideak. Marianek 35 urte daroaz bere denda eta denda txikien profesionaltasuna eta kalidadea denda txikien ezaugarri nagusiak dirala nabarmendu dau. "Guk kalidadea emoteko inbertitzen dogu, opariak egiteko papelean be. Gainera, bezeroari emoten deusagun konfidantza apartekoa da. Bermeon etxera eraman eta beranduago ordaintzeko aukera eman dogu betidanik, konfidantza hori ez dago beste leku batzutan".

Apartekoak izan, bestelakoak eta bezeroarengan harreman gozoa izatea da herrietako merkataritzaren eredu. Gernika-Lumon argi dauke: "Gernikan denetarik daukagu .eta kalidadekoa. Merkataritza mota jakin bat izatea baino geure indarguneak

hurbiltasuna, kalidadea eta produktuen eskusibotasuna dira. Geure lan egiteko eran argi dago hau: normalean bezeroak etxera eramaten dabez artikuluak, etxean trankil-trankil probatzeko...eta bezeroak badaki hemen erositakoa ez dauela inon bez aurkituko. Geure bezeroa eskualdean bizi dana da eta gernikako merkataritzak eskeintzen deutson hurbiltasuna, eskusibotasuna eta gozotasuna baloratzen dau. Geure "lagunak" dira eta horregatik hoberena emongo deutsegu, prezio onenetan".

Erosteko ohitua barriak = birmoldaketa?

Erosketak klik batez egiteak, 24 orduz zabalik dagoen online merkatuan erosteak, epe laburreko erosketak, erroka kate handiek eskusibotasuna galdu eta lehiakortasunean irabaziz...merkataritza errealdide barria sortzen dabe. Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak, CECOBK, ohitura aldaketak eta merkataritza digitala (e-commerce-en) goraldia tokiko merkataritzaren egoeraren arrazoiak dirala uste dau eta honakoa nabarmendu egiten dau: "gertuko merkataritza salbatzeko premiazko neurriak hartu behar dira".



Busturialde,
EUSKARA eta
URDAIBAIEN alde



"Ez dakit jendeak gutxiago erosten dauen, interneten erosten dauen edota merkatal zentru handietan erosten dauen, baina urte asko daroaguz krisi egoera honegaz. Dirua gastatzerakoan aisialdiangastatzea lehentasunezkoa izatea be izan ahal da. European, adibidez, interneten erosten arinago hasi ziran eta halanda be, Europako herrietako dendak bizirik dagoz, nahiz eta internet hor egon. Dendatan mugimendua dago. Horregatik geure galdera da, zer egiten ari gara gu txarto?"

Gernikako Merkatarik Elkartek honakoa adierazten dau:
"CECOBIko kideak garen heinean, bere proposamenen alde gagoz, geure proposamenak eta aldarrikapenak diralako".

Merkealdiak, bi ahoko ezpata

Proposatutako neurrien artean merkealdi eta promozioiko politika ordenatuaren alde lan egitea dago baita merkataritzako ETEen zauri digitala murriztea eta sektoreko fiskalitatea berrikustea be. Izan be, guzti honek merkataritza txiki eta ertainari lehiakortasuna kentzen deutsee. "Merkealdien liberalizazioa ez da etorri ondo. Dendak babesbarik gagoz. Aurton, adibidez, ez dira egon

Bonodendak Gabonetan eta asko igarri da. Merkealdiak eta promozioak jartzerakoan merkatu askatasuna dago eta hauxe erregulatu behar da. Azkenean, generoa erosi eta merkealdietan saldu beharko dogu. Gure artean zapaldu egiten gara. Gezurrezko publizitatea be badago. Denda txikietakoak autonomoak gara eta hile amaiera arin heltzen da", nabarmendu dabe Bertonetik. Kaleko saltzaileen lehiakortasuna be hortxe dagoela aipatzen dabe GMEtik, "kaleko saltzaile ilegalak, beste puntu kezkarria da geuretzako eta erakundeek honen aurrean neurriak hartzea eskatzen dogu".



Internet, nahaste-borrastea?

Kontsumo joera barriek geure dendetan daukeen eragina zein dan da galdera, eta berau erantzuteko sakoneko analisisia egin behar da. Inork ez dauko arazoaren giltzarria. "Ez dakigu segurtasun osoz internetez egiten diran erosketak arazoa diran ala ez, horretarako hausnarketa sakona egin beharko litzateke. Izan be, dirua gastatzerakoan aisialdian gastatzea lehentasunezkoa izatea be izan ahal da. European, adibidez, interneten erosten arinago hasi ziran eta halanda be, Europako herrietako dendak bizirik dagoz, nahiz eta internet hor egon. Dendatan mugimendua dago. Horregatik geure galdera da, zer egiten ari gara gu txarto?", planteatzen dau Ziortza De Olamendik, Bertoneko kideak.

Emakumea lan munduan sartzeak familia ereduak aldatu dauz urte gutxitan. Belaunaldi baten geure bizitzeko estiloa aldatu egin da eta internetek erantzunik erosoena eta eraginkorrena eman deusku. Aro digitalean sartuta gagoz eta "internetek geure burua barriztu eta bezeroaren eskaeraren mailan egotea eskatzen deusku. Horretarako, elkarteko establezimenduek (GME), euren espazio fisikoaz aparte, euren dendaz aparte, online plataforma izango dabe, Bizkaia Digital Market-en bitartez. Hau dala ta geure bezeroek Gernika-Lumon klik batez erosteko aukera izango dabe be. Birmoldaketa sasoian gagoz, eten barik prestakuntza lanak egiten, barriztuz, fidelizazio tresnak sortuz eta online euskarrietan egonaz. Azken finean, gizarteak eskazen gaituena eginez, indartsuak eta lehiakorrak izateko", nabarmendu dabe Gernikako Merkatarik Elkartetik.

Erosketen turismoa indartzea be negozio ildo bat izan ahal da geure herrietako bezeroak dibertsifikatzeko. Horretarako, herriek euren erakargarritasuna areagotu behar dabe eta baliabideak prestau turistak kaleetan

denbora gehiago mantentzeko. "Bermeon komertzio on bat daukogu eta geure bezeroak batez be herrikoak dira. Pena bat da bisitatzen gaituen turistek oso denbora gutxi daukeela. Autobusatik bajatu eta buelta arin bat emoten dabe. Askotan ez dauke denborarik erakuslehoiak ikusteko bez. Zeozer gastatzen badabe ostalaritzan izan ahal da", azaldu dabe Bertonetik. Gernikako Merkatarik Elkartuak oso ondo ikusten dau turistak etortzea, "Gernika-

Lumora jendea etortzea beti da onuragarria. Pertsona hoiek geure establezimenduetan erostea da geure helburua. Horretarako, merkataritza eta turismoko udal mahai bat daukagu eta honen bitartez, turistak Arbola bisitatu ezezik geure komertzioaz, ostalaritzaz eta zerbitzuaz disfrutatu ahal izateko kanpainak

sortzen dira. Asko daukagu eskeintzeko eta".

Promozioa, turistari zerbitzu bereizgarria emoteko merkatarikien prestakuntza, ibilbide turistiko-komertzialak diseinatzea, hirigintza erakargarria eta herrietako merkatal ekipamenduen modernizazioa merkataritza eta turismoaren arteko sinergiak aprobetxatzeko gakoak izan ahal dira.

Eta noski, belaunaldi-ordezkapena bultzatzea be ezinbestekoa da negozioen jarraipenerako. Enpresa txiki eta ertainean sustapena eta garapenerako gakoak dira aholkularitza, laguntza tekniko eta ekintzailtza zerbitzuen jarduera bateratuak.

Denda txikiak rol garrantzitsu bat betetzen dabe gizartean eta ekonomian be. Eurek barik geure herriek argia, kolorea eta bizia galduko ebeen. Geure esku dago herrietako merkataritzaren eboluzio baikorren alde egitea.

VEN Y DESCUBRE
COMO SE VIVIA EN URDAIBAI
hace 2300 años

ZATOZ ETA EZAGUTU
ZELAN BIZI ZIREN URDAIBAIN
orain 2300 urte

Bisitak : **Zapatu edo Domekatan**
Visitas: Sábados o Domingos

Ordutegia - Horario: **10:00h. - 14:00h.**

Tlf: 634 24 37 62 arrolagune@visiturdaibai.com

URDAIBAI MAGAZINE 7

Arrolagune: Loiola Auzoa 4 - 48383 Arratzu (Bizkaia)



Arrolagune

Arrolako Oppidum-aren
Interpretazio Zentroa





43°25'06.9"N LATITUDEA 2°43'22.4"W LONGITUDEA

Geure kostaldeak izaera, esentzia eta historia ezabaezina eskeintzen deusku, olatuak igaro arren. Itsasgizon, arrantzale, nabigatzaile ausartak, sareginak, neskatilak... guztiak dira geure portuetako zaporea. Busturialdea-Urdaibaiko portuak oso ezberdinak dira baina lasaitasuna eta algara partekatzen dabe hainbana. Hauen historian murgiltzeko gonbidapena egiten deusugu. Has gaitezen itsas bidaia...

Mundaka, dotoretasun xarmagarria

Kostaldeko herri txikia da, erakagarritasun turistiko handikoa, sofistikatua eta *chic* ikutuagaz. Mundaka surf munduko santutegia lez ezaguna da. Udan, giroa bikoiztu egiten da, baita biztanleak be, baina neguan itsasoko bistak, batzutan zakarra badago be, aldeko puntua dira .Askotan surferrak aurkitzen dozuz bere ezkerreko olatu ospetsura igotzeko prest, munduan bakarra. Izpiritu surfaria bereizgarria da.

Babes zaitez bere portu barrenkoian, bertan txalupek eta kirol-ontziek surf taula eta neoprenoekaz bat egiten dabe. Mundakako Alde Zaharrak zaporea emoten deutse herriko kaleei, estuak, bihurriak eta xarma berezikoak.

Mundakan Santa Katalina basiliza bisitatu ahal dogu, edertasun handiko paraje honek garai baten geure historiaren lekuko izan zan. Paseo barri batek, kostatik, portutik bertara eramango zaitu.

Mundakara heltzerakoan Talaia bisitatzan da beti,

Urdaibaiko estuarioaren eta Mundakako itsasadarraren panoramika apartekoa eskainiz. Zuzendu zure begirada Iزارo irla enblematikora eta aurrez aurre dagoan Laida hondartzaren edertasunari so egin, Olatuak harrapatutako surfariak bilatu edota bitsa, kresala eta olatuen jolasakaz gozatu.

Andra Mari eleiza (XVI.m) eta errenazentista estiloko Kurutziaga Jauregia eta Kurtzioa (XVII.m) baliabide nabarmenak dira.

Herriko giroaz gozatu tabernetan, mundakako bizitzeko eragaz bat egin.

Bermeo, kresala sustraian

Portu historiko honek Kantauriar Itsasoko bajurako arrantza flota gordetzen dau. Bere izaera arrantzalea eta Erdi Aroko iragana herriko txoko eta bazter guztietatik dagoz. Arrantzaleen etxetxuetatik hasita, estuak eta itxura berezikoak, bata bestearen gainean pilatuta. Hauek gaur



Bermeo

egun monumento artistiko-historikoak izendatu dabez. Beste elementu bat kai-muturra da, modernoa, gogo gatzex eusten dauz honek itsaso zakarraren enbatak.

Begirada darsenan jarrita, Ertzilla Dorreatik, Arrantzaleen Museoak euskalarrantzaleen bizitza eta historia kontatzen deusku. Honen moduko museo gutxi dago munduan, euskalarrantzaleen bizitzari, lanari eta arrantzari dagokion guztia erakusten baitie bisitariei: arrantzaleen bizitzaren eta ohituren deskribapena, beren gremio-elkarteak, ontziak, eta denboraren poderioz arrantatzeko eta arraina merkaturatzeko erabili dabezen teknikak. Bere kokapen pribilegiatuak izaera emoten deutso. Bermeoko Portu Zaharrean Ertzilla Dorre historikoan dago kokatuta, 1943. urtean monumento nazional izendatutako eraikin honek museo berezi hau hartzen dau barruan.

Bermeon be bisitagariak: San Juan portalea (XIV.m), herria inguratzen eban antxinako harresiaren aztarna

bakarra; Alde Zaharra, esentzia bermeotarraren gunea; Andra Mari eleiza (XIX.m); Santa Eufemia eleiza, Bizkaiko foruak zin egiten ebeen erregeek tenplu gotiko honetan; eta Prantzizkorarren eleiza eta komentua eta bere klaustro gotikoa.

Bermeoko giroa bizirik dagoen herriarena da. Kai-muturratik paseotxo bat emoteak, edota bere kirol portutik ibiltzeak, taberna txikiez eta terrazakaz hornituta, indarbarritzen dau.

Gaztelugatxe derrigorrez bisitatu behar da. Espektakulu naturala da, bere basiliza, antxinako gotorleku tenplarioa, aparteko edertasunaren paisaia ikuskatzeko penintsula baten kokatuta, gaur egun Euskadiko turismoaren motor bihurtu da. Bere xarma apartekoa, zeruertzean ebagitako irudia eta bere balio naturala, paisaiakoa eta historikoa honen bermeak dira. Altxor natural hau Babestutako Biotopoa da, bere urengatik eta flora ta faunaren biodibertsitateagatik.

Elantxobe, bertikaltasuneko izaera apartekoa

Bere irudia berezia da, bertikalean. Bere orografia eta fisonomia bereziek, bere kale txiki eta estu aldapatsuek, izaera apartekoa emoten deutse. Mugikortasunaren bila joatea, irisgarritasunaren beharizana eta asmamena autobusak buelta emoteko plataforma biratzaile baten



Elantxobe



batu ziran, gaur egun herriko erakargarritasun turistikoa dana. Bertaratu eta 360°ko esperientzia biziko dozu.

Elantxobe 1520. urte inguruan sortu zan. Sasoi hartan arrantzaleen talde txiki bat bertara joan zan bizitzen, Ibarrangeluko auzo bat zen antza. Bere etxe pilatuak, Ogoño Lurmuturraren magaletan zintzilik, kanposanturarte heltzen dira gorantza eta porturarte doaz beherantza. Hauek elantxobetarren izaera langilea eta ekintzailea bizirik mantentzen dabe.

Bere portuak, gaur barriztuta, herria besarkatzen dau eta kulunkatzen dau, ia ia nola jauzi egiten dan itxaroten dago. Izan be, herria amildu egingo dala emoten dau. Egoera zail hau bere xarmaren parte da. Kirol-ontziak dagoz gaur egun Elantxobeko portuan baina izaera arrantzalea ez da galdu herrian.

Ea, polita eta itxura askokoa

Herria itsasadar estu baten bokalean sartuta dago. Etxeak ibaiaren gaineko zubien bitartez batutako bi auzoetan zehar lerroan dagoz. Portua itsasoari zabalik dago eta hondartza xume, lasai eta isil bat dago bertan. Bertatik paseo lasai bat emon. Oso berezia da itsasaldien arabera nola portua desagartzen eta barriro agertzen dan ikustea. Portua handiagotu edo txikiagotu egiten da itsasoaren erritmoa jarraituaz.

Sasoi batean, Natxitua eta Bedaronako eleizateetan egoan banatuta herria eta Gernikako Batzar Orokorretan jesarlekua eta botoa zeukaten hauek. Herri berezi honen bitxikeri bat hori da, bi parrokia dagozela ibaiaren ertz bakoitzean, bata besteatik oso hurbil.

Bedarona, Natxitua edota Angelutxuko auzoak bisitatu, landa izaerakoak eta itsas ikutuagaz. Bertako baserriek edota ondare baliabideek, Iturriñako Latsagia honen kasu, xarma emoten deutse.

Ibaiaren ubidea jarraituaz, Urtubiagako burdinolara heltzen gara. Ondare industrial hau, itsasadarra aberastasun iturria zan garai hartako lekukoa da. Eako erdigune be zeharkatu ahal dogu. Kaleetan murgiltzeak merezi dau, hondartzara eta portura heldu arte. Geure ibilbidearen amaiera borobila.

Arrien Optika



Urkieta k. 10

Tel./Fax: 946 25 63 63

Email: arrienoptika@yahoo.es



EUSKAL

SOUVENIRS

Andra Mari kalea s/n.
48300 GERNIKA

946 251 930 - 685 758 102



euskal.souvenirs@gmail.com

www.euskalsouvenirs.com



URDAIBAI

MAGAZINE

© bai Nueva Europa

HARPIDETU ZAITEZ - SUSCRÍBETE
IRAGARRI ZURE NEGOZIOA - ANÚNCIATE

www.urdaibaimagazine.eus

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.com

Tel.: 94 625 06 06



Visit Urdaibai

© bai Nueva Europa

Urdaibaiko esentzia ezagutzeko

BISITA GIDATUAK

turistikoak
kulturalak
ekologikoak

Zeure neurriko plana egingo deusugu!

Informazio gehiago eta erreserbak: 634 24 37 62

www.visiturdaibai.eus





"Beti izan dot Ameriketara joan zirenen omenez zeozer egiteko gogoia, euren bizimoduaren gazi-gozaok jakitera emotekoa, oroimenean gorde daiguzan eta zor jaken errespetoa aitortu daioegun. Eurotako bakoitza istorio bat da, bizipen bat, latzagoa edo atseginagoa, baina danak miresgarriak eta ohoregarriak. Bizitzaren lekukoak eta gure herriaren historiaren parte dira".

Esther Korta, <<Ameriketara>>

AMERIKAN IZANDAKO NOSTALGIA ETA BAKARDADEKO ISTORIOAK

Emigranteen alaba, iloba eta biloba, Esther Korta euskara irakaslea da, Etniker Bizkaia taldeko kidea, Euskal Australiar Alkarteko bokala eta etnografia eta kultura arloko hainbat lanen egilea. Bedaronan dauzka bere sustraiak, baina bere begirada beste kontinenteetan dago. Etorkizun hobeagoaren bila mundura joan ziran euskaldunak hartu ebeen kontinentei begira dago. Iparragirrek horrela idatzi eban Gernikako Arbolan: *Eman ta zabal zazu munduan frutua*, eta horrela egin ebeen euskaldunek. Gaur, Estherrek omendu egiten dauz *Ameriketara* izenburuko liburuan eta lantzen ari dauen bigarren partean be. Testigantzak batu eta kontserbatzeko preminazko lan gatxa da hau, etorkizuneko belaunaldiek euren arbasoen historia eta bizipenak ezagutzeko.

Urdaibai Magazine: Idazlea, ikerlaria, euskara irakaslea,... zegas identifikatzen dozu zeure burua?

Esther Korta: Izatez, euskara irakaslea naz. Baina etnografia eta kultura arloko hainbat lan eta proiektu burutu dodaz eta burutzen nabil, gustuko dodazelako.

Zerk suposatzen dau zeuretzat Bedarona, zure jaioterria? Dana, hangoxea naz.

Halanda be, zure herritik urrunera joan zirenen bizimodua interesatu jatzu zeure liburuetan euskal diaspora gaitzat hartuta... Zer dala ta?

Beti izan dot Ameriketara eta kanpora joan zirenen gainean zer edo zer egiteko gogoia. Gure herritik, beste askotatik moduan, jende asko joan zan kanpora XIX. mende amaieratik XX. mendearen ia amaierara: Filipinetara, Australiara, baina batez ere Ameriketara. Eta joan zirenen bizipenak, pasadizoak, bizimodua, gazi-gozaok... jakitera emon gura izan dodaz beti. Izan ere, geure Historiaren parte dira.



Esther Korta bere liburua eskuan daukala

"Bizimodu gogorra izan eben. Lurralde desezaguna, ingelesez barbarik bez, ardia zer danik bez askok eta goizetik gauera 2000 ardiko artaldearen ardurea euken. Zer izango ete zan? Herrimina eta bakardadea. Bakardadea zala diñoe areriorik txarrena"

Ameriketara edo Australiara joan zirenen artean familiarik?

Bai. Ni neu emigranteen alaba, loba eta biloba naz. Birraitxitxe eta aitxitxe Ameriketara joan ziren, osaba bat Idahon bizi da. Nire aita eta anaiak Australiara joan ziren, osaba bat bertan bizi da North Queensland-en. Uste dot zor neutsiela holako liburua neure aurrekoei.

Zeure azken aurreko liburuan Bedaronatik Ameriketara joan zirenen bizipenak jaso dozuz. Zelan hartu dabe herrian liburuan agertutakoa?

Ederto baten. Esan behar dot lehenengo eta behin, herrikoak barik ezin izango nebala libururik idatzi eta esker ona baino ez daukot herritarrentzat; baita hemen zein Ameriketara bizi diren emigranteen senide, lagun eta lagundu deustien guztientzat ere. Eta eurek ere halan hartu dabe. Esker onez. Estimazio haundia izan dau hemen. Ameriketara ere 70 liburutik gora bidali dodaz.

Nabarmendu gura neukona da, liburua dala eta ez dala, aurtan hiru familiatakoak etorri direla Bedarura euren jaioterra, baserria eta familia ezagutzero. Eurekin egon nintzen eta benetan hunkigarria izan zan. Eta niretzat, ba, ez dakit zelan



Martin Atxabal, Ameriketako emigrantea

esan, pozgarria. Egindako beharraren fruitua ikusten da eta...

Eta oraingoan, udalerrri guztia osatzeko Natxitua auzotik eta Ea erdigunetik joandakoen gainean beste liburu bat, ezta?

Bai, Bedaronakoa amaitu nebanean, jendeak aitatu eustan herri osoarena izatea komeniko litzatekeela eta hollantxik hasi nintzen bigarren liburua gaz eta ea datorren udarako argitaratzen dan. "Ameriketara eta" deituko da. Oraingoan, artzain lanetan joandakoez gain, itsasoan jardun eta atzerrian lehorrean beharrean geratu ziranak ere kontuan hartu dodaz.

Zelan burutu dozu ikerketa lana? Gatxa izan da guztia batzea? (argazkiak, testigantzak...)

Aurrekoan eta oraingoan bardin. Etxerik etxe, familiaz familia joan naz. Kanpora joandakoez, euren ondorengoez, senideez, lagunek hartuemonak izan dodaz. Argazki asko eta informazi ugari emon deustie. Horregaz batera artxiboetan bilatu dot. Beti ez da eraza izaten; berez, landa beharra gogorra da; gainera, kasu batzuetan ez dago ondorengorik, familiek ez dakie gauza haundirik, datuak ez datoz bat...Idatzi aurretik beti kontrastatzen dot dana. Eta lana ez dago geldirik, jakitun egongo dira dagoeneko eatarrak, Ea eta Natxituko liburua egiten nabilela. Danakaz egon naz baina nonork zeozer badauko esateko, baten bat hor geratu bada, hemen nago testigantzak hartzeko prest.

Testigantza ugari?

Bai. Bizimodu gogorra izan eben. Lurralde desezaguna, ingelesez barbarik bez, ardia zer danik bez askok eta goizetik gauera 2000 ardiko artaldearen ardurea euken. Zer izango ete zan? Herrimina eta bakardadea. Bakardadea zala diñoe areriorik txarrena. Istorio politikak dagoz, tristeak be bai, danetarik.

Zenbat denbora behar izaten dozu liburu bat idazteko?

E.K: Bedaronakoa, "Ameriketara" dalakoa, bi urte eta erdi. Eta oraingoan hiru urte izango dira amaitzen dodanerako. Neure denbora librean egiten dot.

Zeure beste liburu bat "Antzinako kontuak" izenekoa da, ezta? Hor be, zeure herriko informazio baliogarria batu zendun...kontaiguzu..

Bai. Hor herriko kantak, ipuinak, usadioak, erritoak, sineskeriak... Bestelakoa izan zan. Herriko ondarea batu neban. Ahozko alkarrizketak egin eta paperera eroan neban. Nagusiek suaren epelean esandako kontu asko eta asko ageri dira. Garai baten lekuko direnak. Hor ere argazki piloa dagoz; argazkiak maite dodaz, idatziari bizia emoten dautse. Jendeak maite dauz.

Beste zeozer esku artean?

Lehenengo bigarren liburu hau amaitu. Ideiak asko. Ikusiko da.



GUZTIZ OSASUNGARRIA DAN OINEZ IBILTZEA OHITURA BILAKATU

Ibilbide Osasungarriak kirola egiteko guneak dira, helburu jakin bategaz: sedentariamoari, loditasunari eta elikadura ohitura txarreatatik sortutako gaixotasunei aurre egin. 2018an Arratzu eta Kortezubiko herriak gehitu dira korrante osasungarri honetara, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kolaborazioagaz. Azken honek, ibilbide hauek diruz-laguntzen dau. Ibilbideen ezaugarriak honakoak dira: seguruak dira, ondo seinaleztatuta eta ondo ekipatuak, eta publiko anitzari zuzendutako diseinu eta profil egokiagaz. Ekimen honek biztanleri aktiboagoa izan eta zahartze progresiboa bezalako erronkei aurre egin gura deutse.

Ibilbide Osasungarriak biztanleria osoari zuzenduta dagoz, baina hauen sorkuntzak batez be kirola egitea ohikotzat hartzen ez dauen publikoari oinez ibiltzeko gonbidapena luzatzen dau. Euren ohiturak aldatu eta euren neurriko pizgarriak behar dauzenei zuzenduta dago ekimena, erosotasunez eta modu errazean, onura eskuragarriak lortzeko. Ezaugarri hauen barne dagozen pertsonak arrisku taldeak dira be, euren ohitura sedentarioak direla eta.

Biztanleriak ariketa fisikoa egitea ohitura egin eta normalizatua izatearen garrantziaz ohartzea ezinbestekoa da eta horretarako, kirol jardueraren alde egiteari zuzendutako lan ildoak sustatzen dabe instituzinoek. Herrietako eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeari begira sortu dira Ibilbide Osasungarriak. Oinez egiteko ibilbide hauek ohitura osasungarriak erraztu eta jarduera fisikoa sustatzen dabe. Arratzuk eta Kortezubik oraintxu egin dabe bat ekimen honegaz. Gautez Arteaga, Sukarrieta eta Elantxobeko herriak, besteak beste, badagoz ekimen honetan. Erabiltzaileek esfortzua optimizatzeke informazio guztia aurkituko dabe ibilbide hauetan: beroketa ariketak, modu eraginkorrean ibiltzeko gomendioak, gorputz jarrera egokiak, maila-aldaketa bakoitzeko erritmoa (igoerak, jaitsierak); jarduera fisiko osoaz gozatzeko ariketak; luzapenak eta erlajazioa.

Ibilbide Osasungarri hauek martxan jartzeko osasun profesionalak be parte hartzen dabe, proiektuari ekarpen medikoak gehituz eta herriko kontsultategiak Ibilbide Osasungarrien informazioa eta ezaugarriak zabaltzeko erreferentzia-puntuak dira.

ZERGATIK DA ONA OINEZ IBILTZEA?

- Ibiltzeak odol-zirkulazioa eta tentsioa hobetu egiten dauz, muskulatura indartzen dau eta indarra eta erresistentzia ematen deusku.
- Gaitasun kognitiboa bultzatu eta estimulatzen dau, arazo kardiobaskularrak prebenitzen dauz eta gehiegizko pisua kontrolatzeari laguntzen deusku.
- Estresa eta depresioa murrizten dauz eta gogo-aldarteak hobetu egiten dau.
- Naturagaz kontaktuan egoteak sentzasio onuragarriak, energia eta bizitasuna eskeintzen deusku.




KORTEZUBI

Ibilbide honen hasiera puntua Terlegiz auzoan dago, Udaletxeko plazan, eta Enderikas, Barrutia eta Santa Ana auzoetan jarraitzen da. Erruta honek landabazal atlantiarraren paisaia zeharkatzen dau baita padurak be eta auzoen arteko, etxebizitza taldeen arteko eta isolatuta dagozan etxeen arteko zein beste herriekaz oinezko komunikazioa sendotuko dau.

Distantzia	7,76 km
Igotzeko maila-aldaketa metatua	81 m
Bajatzeko maila-aldaketa metatua	77 m
Gehiegizko altitueda	77m
Gutxienezko altitueda	1m
Zailtasuna	Erraza

ARRATZU

Ibilbidea zirkularra da, Zabala-Belendiz auzoan hasi eta amaitu egiten da eta Uharka, Olesko, Barrutia eta Elorriaga auzoak zeharkatzen dauz. Oinezko joan-etorriak egin ahal izateko eta kirola egiteko ibilbidea da, modu naturalean eta eraginkorrean. Auzo-bide eta eskualde-errepidearen oinezko errailatik zehar doa ibilbidea, balio natural handiko atlantiar landazabala eta landa paisaian murgiltzen da. Oinez egiteko guztiz aproposo, lasaitzeko eta tentsioak kentzeko. Gainera, Gernika-Lumotik hurbil dagoz auzo hauek eta ibilbide honek herritarrak Gernikararte oinez heltzea sustatzen dau.



Distantzia	5.58 km.
Igotzeko maila-aldaketa metatua	68 m
Bajatzeko maila-aldaketa metatua	96 m
Gehiegizko altitueda	78 m
Gutxienezko altitueda	2m
Zailtasuna	Erraza

Ereñozar, historia txundigarria lurazpian

Zurbeltzetako mantu zarratuaz estalita, Ereñozar Urdaibaiko ikuspuntu ezberdinetatik ikusten dan mendia da eta begiratoki natural apartekoa. Santimamiñeko kobak dagoz bere magalean eta tontorrean Mikel Deunaren baseliza. Gailur ederra eta magikoa da, 448metrokoa, eta barruan historia liluragarria gordetzen dau: setioen kronikak, Erdi Aroko gazteluak eta nekropoli bat. Iraganak are gehiago goratzen dau Ereñozarko Mikel Deunaren xarma.



Ezagutu Gautegez Arteaga
pausoz pauso



A

lfon^{so} XI.aren kroniken arabera (1334. urtea), jaun bizkaitar batzuk, Joanes Nuñez Larakoa buru zutela, babesa hartu ebeen Erenchoko gazteluan.

Ereñozarko sekretuak 2008.urtean deskubritu ziran. Orduan, Bizkaiko Foru Aldundiak indusketa lanak hasi ebezan, Bizkaiko Erdi Aroko gazteluen ikerketa proiektuaren barne. Kokapen hau apartekoa zan gaztelu bat eraikitzeko bertan, defentsarako gotorleku bat itsasotik zein lurratik etorritako "arerioak" kontrolatzeko.

Aurkikuntzen arabera tontorrean XI.mendearen harresitutako gaztelu bat egoan. Monarkiak, honek inguruan eukazan ordezkariek edota lurraldeko jaunek erabiltzen ebeen gotorleku hau, indarraren erakusle. Gotorlekuak etsaien eraso posibleak uxatzen ebezan. Egurrezko atea eukan gotorleku honek, defentsarako dorre bigaz eta omenaldiaren dorreagaz, gazteluko dorre nagusia. Honek 8 metroko altuera eukan eta bi solairukoa zan, egurrezko egituraduna. Dorre honek gazteluko hainbat gela barne hartzen zituen.

Gotorlekuan tailerrak be zeuden, gutxienez 3 gela txiki zeudela uste da; horietan pare bat pertsonak lan egingo ebeen eta labe bat izango eban, teilak eta adreiluak egiteko, metalgintzarako, burdina galdatzeko, etab. Arkeologoek animalien hezurak eta hondarrak atera dabez (ostra ugari, itsaskiak, ahuntzak, behiak, etab.). Horri esker, garai hartako elikaduraren barri izan dogu. Gaztelua inguratzen eban harresiak kareharrizko harlangaitz egitura dauko eta 4 metroko altuera izan ahal eban. Gaur egun honen aztarna originalak kontserbatzen dira.

Oraindik argitu ez diran arrazoiak direla medio, gaztelua utzi egin ebeen eta, XII. mendetik aurrera parrokia gisa



Ereñozar gazteluko birsorkuntza (Mikel Neira BFArako)

erabiltzen hasi ziran. Parrokia honi lotuta, Ereñozarko nekropolia dago, bitxikeria ugari ezkututzen dauz honek. Baseliza inguratzen eban hilobiratze gune honek, harresirarte. Bertan, hilobi bikoitzak, mende ezberdinetako hilobiak edota bata bestearen gainekoak be aurkitu dira. Bizkaiko Foru Aldundiak 240 gorpuzki atara dauz eta askoz be gehiagoren hezur hondarrak aurkitu dira.

Baseliza

XVI.mendearen Ereñoiko parrokia eraiki zan, gaur egungo kokapenean, beraz, parrokia Ereñoiko San Migel elizara igaro zan, eta Ereñozar landa-baseliza bilakatu zan. Tenpluak hainbat aldaketa eta hondamendi jasan dauz urte hauetan guztietan, baina gaur egun zutik jarraitzen dau. Barruan, iraganari buruz aritzen diran piezak gordetzen dauz: hilobi antropomorfo bat, hilobi ezberdinetako tapak edota aldarearen pieza, erromatar garaikoa izan ahal dana.

II. Gabonetako Erakusleihu Lehiaketa II. CONCURSO DE ESCAPARATES DE NAVIDAD



VOTA A TU ESTABLECIMIENTO FAVORITO
EMAN BOTOA ZEURE FAVORITOARI





ELANTXOBE, GORGONIO RENTERIA

Itsasgizona, idazle sano emonkorra, komunikatzaile apartekoa, euskalzale amorratua eta politiko konprometituta... Gorgonio Renteria historia egiten dauen pertsonaia da. Elantxobe bere jaioterriatik mundura irten zan bere esentzia galdu barik. Izan be, bere izaera izan zan bere bandera-ontzia. Euskal Herria defendatzeko bizi zan.

Elantxobeko Kultur Etxeak bere izena darama gaur egun, bere jaioterriak gizon ospetsu hau gogoan izateko, Gorgonio Renteria. Berak, nabigatzaile lanbidea, karrera politikoa eta bere alde literarioa batu ebazan. Garai hartako euskaldunen artean guztiz ezaguna zan (1936ko Espaniako Gerra Zibilaren aurretik). Hizlari bikaina lez ezaguna zan, masa-mugimenduen bihotzera heldu zan bere hitz jarioari esker.

Gorgonio Renteria Elantxoben jaio zan 1868ko irailaren gan. Bere lehen ikasketak bere jaioterrian egin ebazan eta 1900.enean Ferrolen atera eban Merkataritza Ontzietako lehen mailako kapitan titulu ofiziala. Itsasgizona izan zan. Filipinetan urte asko emon ebazan merkataritza ontzien kapitana gisa. 23 urteko gaztea zala joan zan Filipinetara. Manuel Intxaustiren ontzioletan kapitan kargua hartu eban. Han egin ebazan urtietan izen eta ospe handia hartu ebazan, gizon artez baina zintzoarena, hain zuzen be. Bere ospeak itsasoak zeharkatu ebazan eta horrela agertzen zan sasoi hartako "Euzko Deya" aldizkarian: "bere izaera, bere sinpatia, bere zintzotasun apartekoa Renteria kapitainaren harremanetara zabaltzen zan, baita Espainiako maila ofizialean be, kontutan hartuta abertzale sutsua zala... Filipinetako uretan nabigatzen

Estatu Batuetako administrazioak ontziburu izendatu eban filipinar ugartearen mapa hidrografikoa egiteko. Sasoi hartan William Howars Taft gobernadorearen lagun handia egin zan, Estatu Batuetako presidente izango zana.

eben kapitainarik ospetsuena izan zan. Bere gaitasuna eta zintzotasuna ukaezinak ziran". 1898. urtean, hispaniar-amerikarren arteko gerran, Manilako Hong-Kong bankako deposituak bere ontzian hartuta ibili zan istiluak amaitu arte. Geroago, Estatu Batuetako administrazioak ontziburu izendatu eban filipinar ugartearen mapa hidrografikoa egiteko. Sasoi hartan William Howars Taft gobernadorearen lagun handia egin zan, Estatu Batuetako presidente izango zana.

Politika arloan, jeltzale sutsua zan. Sabino Aranaren garaikidea zan, haren ideologia eta pentsakeragaz bete-betean egin eban bat. 36 urte zituela, 1904.enean, Elantxobe jeltzaleen udal ordezkaria izendatu ebeen. 1916 eta 1921 urte bitartean, Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan ardurak bete ebazan BBB eta EBBren barruan. Elantxobeko Alkatea be izan zan (1916-1921), Eusko Alderdi Jeltzaleak izan eban lehenengotarikoa. Elantxobeko alkatea izan zan garai hartakoa da kanpusantuko sarreran dagoen bere esaldi ezaguna. Elantxobeko abadeak latinezko esaldi bat bilatu gura eban hilerriko atarian jartzeko, 1916. urtean eraikitakoa. Gorgonio Renteriak asmatu eban: "Otoi bat eta gero arte". Garai hartan be Elantxobeko Batzokia zabaldu zan, bera alkatea izan zanean. Batzokia

1919. urtean inauguratu zan eta jeltzaleen gunea izateko eraiki zan lehen etxea izan zan. Gorgonio Renteria Bizkaiko Diputazioko ahaldu izan zan be Gernikako hauteskunde barrutitik (1919-1923). Ahaldu bezala arrantzaleen eta kostaldeko herrien egoera hobetzearen alde egin eban. Kargu utzi ebanean arrantzaleek eta itsasoko langileek omenaldia egin eutsien, eskainitako laguntzaren alderako. Garai hartakoa da be Elantxobeko portuko birmoldaketa, kai barria egitea bere proposamena izan zan 1923an.

Amaiaren oroimenak

Gorgonio Renteria Julia Aurrekoetxea Abaituagaz ezkondu zan, Elantxobekoa, eta hiru-seme alabak izan ebezan. 1913.enean alargun geratu zan eta handik gutxira barriri ezkondu zan bere lehen emaztearen haizpagaz, Virginia. Guztira, 9 seme-alaba izan ebezan. Lan politikoagaz batera, itsasgizona izan zan eta literatura be bere pasioa zan. Gerra Zibilean bere konpromiso politikoa mantendu eban. Garai hartan, gerran izandako gudariak bisitatzen zituen hospitaletan. 1937.enean Baionara egin eban ihes bere familiagaz. Baionan *"Euzko Laguntza"* bulegoa antolatu eta zuzendu eban, diktaduratik ihes egiten ebeen erbesteratuak hartzeko.

Amaia Renteria bere alabak oso gizon maitekorra, alaia eta ona zala gogoratzen dau, politikan sakonean sartuta egoala. Zentzu honetan, bere ama ezinbestekoa izan zala adierazten dau, zera gogoratuz: *"gizon handi baten atzean, emakume handi bat dago"*. *"Nire aitak gehiegi egiten eban lan alderdirako eta nire amak gugatik sakrifkatu zan, Ama bere bigarren emaztea izan zan eta guztion ardura hartu eban, guztiok haziz. Nire aitaren lehen emaztearen hiru seme-alabak, bere lobak zirenak, eta guri, bere sei seme-alabak"*.

Amiak 95 urte dauzka eta maitasun osoz gogoratzen dauz Elantxoben igarotako udak. Izan be, bi urte zituela familia Bilbora joan zan bizitzen. Baionan bizi izandako urteak be atseginak izan ziran, nahiz eta erbeztean egon. Bertan be unerik gogorrenak bizi ebezan. *"Ibai ondoko apartamento txiki baten bizi ginan. Juan Zubieta Jaunagaz, Elantxobeko alkatea, eta bere koinatagaz bizi ginan. Manuel Intxausti Jauna aberatsa zan eta bisitatu gintuan. Berak ordaindu eban nire aitaren gaixotasunaren gastu guztiak. Pariseko onkologorik onenera eraman eban aita baina tamalez 54 urte zituela aita hil egin zan. Oso gogorra izan zan. Nire aita gizon ona zan, kristau fededuna*

eta abertzalekotasunari gogor lotuta. Orain dala asko izan zan eta gazteek gaur egun ez dabe ia ia gogoratzen", adierazten dau Amiak.

Hizlari gisa, Gorgonio Renteria JELtzaletasuna hedatzen eban. Bere hitz-jarioari esker mitin politikoetan erraz heltzen zan jendearengana. Galo de Ibiñagabeitiagaz batera Bizkaiko herrietan jardun eban, berak hitz egin eta Galok abestu egiten eban: Mungia, Bermeo, Gernika eta baita Bilbon be. (Espaniar Gobernuko iturrien arabera, sei mila lagun elkartzen ziran bere mitinetan)



Gorgonio Renteria bere laguna izan zan Kepa Enbeita "Urretxindorra"gaz. (www.elantxobe.eu)

Hizlari aparta izan bazan, idazle emonkorra izan zan be. Renteriak aldizkari askotan idatzi eban: *Euzkadi, Ekin, Euskalzale, Baserritarra, Euzko Deya* edota *La Baskonian*. Bere alaba Jule Renteriak bere artikulu guztiak eta olerkiak batu ebezan *"Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikuluak"* izeneko liburuan, Labayru Institutuak eginda, BBK Fundazioagaz batera. Euskaltzale fina zan, bere idatzietan euskararen alde eta euskalduna izatearen harrotasunaren alde egiten eban. Bere herria, bere euskaldun nortasuna, bere abertzaletasuna eta kristautasuna bere idatzietan prestu agertzen dira.

Gorgonio Renteria Baionan zendu zan 1940.urteko urtarrilaren 27an. 20 urte geroago, 1959.urteko urtarrilaren 15ean eraman ebeen bere gorpuzkiak Elantxobeko *"Bermokiz"* kanposantura. Bertan, bere idazkina mantentzen da hilerriaren atarian:



MAKAILAOA

BETIDANIK, SALTSA DANATAN

Makailaoa, *Gadus morhua* da bere izen zientifikoa, geure kulturari eta geure ekonomiari lotutako espeziea izan da ia betidanik. Arraina gutziazatua da hau eta Erdi Arotik euskaldunon izena eta ekintza gogoangarriekaz erlazionatu da.

Makailao harrapaketa hasierako garaietan abentura epikoa zan eta geure inguruko enpresa nazioartekotze lehen esperientziatzat hartu ahal da. Aparteko itsasgizon hoi balioa, eraginkortasuna eta azkartasuna ziran ekimenaren ezaugarriak.

Hasierako garaietatik hasita, abentura eta urruneko arrantzaleku "sekretuekaz", euskal merkataritzagaz lotuta jarraitu zan makailao harrapaketa. Sasoi batzutan ekonomian eragin handia euki eban. Gaur egun makailaoaren alor gastronomikoa ezagunena izan arren, garai baten Europako lonja askotan Bilbon makailaoak hartzen eban kotizazioaren zain egozan.

Makailao arrunta edota Atlantikoko makailaoa familia bereko 60 espezieetako bat da, migratzailea, itsaso hotzetan ibiltzen dana. Gustukoak daukoz kostaldetik hurbil dagozan guneak, 100 metrotik 500 metrotako sakonune aldakorretan dago bere habitata. Bere batez besteko pisua 3 eta 15 kilo artean dago baina 100 kilo izatera iritsi ahal da be eta metro t'erdiko luzeratik gora izan ahal dau.

Garai baten Europako lonja askotan Bilbon makailaoak hartzen eban kotizazioaren zain egozan.

Arrain zuri honen haragiak koipe gutxi eta proteina ugari daukoz eta karbohidrotorik ez. Bitaminei dagokienez, B taldeko B1, B2, B6, B9 eta B12 bitamina-mota eskaintzen deuskuz. Mineraletan, itsas produktu guztiak bezala iodoan dogu aberatsa. Makailaoak omega 3 eta fosforo emoten deusku eta bere azalak kolageno asko dauko.

Arrain aldakor honek eragin zuzena izan dau geure kultura gastronomikoan eta geure dietan. Sekulakoa da: kontserbazino gaitasun handia dauko, bere ezaugarriak mantenduz, zaporea eta ehundura. Honi esker, sukaldaritzarako eta nutrizinorako balio handiko baliabide aparteko hau geure esku dago.

Makailaoa ez da faltatzen ohiko errezeta-liburuetan. Prestatzeko erak askotakoak dira pil-pilean, saltsa bizkaitarran edota *club ranero* dalakoan. Abangoardiazko sukaldaritzan be osagai nagusietakoa da, arrain honegaz bitsak, kremak, kurruskariak eta gutizia bereziak prestatzen dira.



MAKAILAOA BIZKAITAR ERARA (EDO SAL TSA GORRIAN).

"El Amparo"ren arabera, Bilbo. 1952

Bezperan moztu eta beratzen ipini **makailaoa** (bakarrik alde fina, erdikoagaz banatuta). Eskamau eta ur garbian ipini saltsa prestatu arte. Egosi eta hazurbakotu egiten da bertan sartu aurretik. **Piperrak** be bezperan beratzen ipintzen dira, piper bat xerra bakoitzeko eta oso handiak badira apur bat gutxiago. Makailao kazola baten 8 edo 10 xerra besterik ez da jarri behar, hamabi gehienez, saltsa asko gehitzen dalako.

Hiru **kipul handi** txikitu egiten dira, kipul larrosa zurbilak izan behar dira eta kazola baten prijidu koipe koilarakada bi jarri, **olio** basu bat, **piper fina**, **perejila** (desegin aurretik kendu behar da) eta **urdaiazpi** zati handi bat bota. Txiri-txiri prijidu, erre barik, eta urre kolorekoa hartuta eta oso urrituta dagoenean (hiru ordu barru) ur irakina bota. Bor-bor utzi loditu arte; sutan bost edo sei ordu egon behar da. Kipula eginda eta ondo lodituta dagoenean, irazkinatik pasatu, urdaiazpikoa kenduz.

Piperrak garbitu egiten dira; morteroan birrindu eta iragazkiatik pasatu.

Ogi mamin apur bategaz azalak birrindu; ur pixka bat bota (gehiegi ez bota, saltsa lodia geratu behar dalako) eta birrindutako azalak be irazkinatik pasatu.

Arrautza egositako gorringoak birrindu egiten dira, irazkiatik pasatu eta saltsa nahastuta, iragazki zarratuago batetik pasatu, saltsa fin-fina eta lodia izateko. **Gatza** eta **azukrea** bota, baita urtutako **urdaiazpiko koipea**, hotzizuta.

Kazolan jarri eta **koipe koilarakada** bat bota; saltsa apur bat bota eta makailao xerrak jartzen dira, kapa bakoitza saltsagaz estaliz, guztiak jarri arte; irakin ipini su motelean, urtutako urdaiazpiko koipea gaineratik botaz, siku eta koipe barik utziz.

Irabiau eten barik eta **azukre hautsa gehitu** zapore mingotsa badauko eta gatza bota, gaztgabe badago. Hauxe errepikatu behar da saltsa puntu-puntu, gazi-gazan ondo egon arte. Izan be, irabiau egiten danean azala barriztu egiten da eta guztia puntu bardinean egotea ezinbestekoa da. Oso gatxa izaten da lehenengo frogan ondo ateratzea, kipula guztiek ez daukeelako gozotasun bardina eta piper guztiek ez diralako hain mingotsak. Apurka-apurka erregulatzea komeni da.

Urtutako urdaiazpiko koipeak grazia emoten deutso eta honi gatza eta azala ondo kendu behar jako zartaginean jarri aurretik. Oilo erreen koipea ez da erabili behar, gatz gehiegi emoten dauelako.

Gurinak be saltsa gozotu egiten dau. Irakin jartzerakoan, kontuz, erre barik. Saltsa erretzen bada zapore garratza hartzen dau eta beraz, berotan ipini puntu-puntu egon arte. Behin zuzenduta ur irakitaren gainean jarri. Aiztoa sartu ez erretzeko eta gainera, saltsa barneratzen da.

Sasoi amaierako piperrak saltsa ilunagoa egiten dabe eta arrautz gorringo gehiago behar da mehetzeko; piper barriek argiagoa egiten dabe saltsa eta hauek nahastea komeni da. Kipul barriak oso gozoak dira eta sasoi amaierakoak mingotsagoak.

Saltsa mina egoteko **piperrina** bota.

Ba al zenekien...?

- Makailaoa itsas espezie ugalkorrenetarikoa da. Eme bakoitzak 5.000.000 eta 7.000.000 milioi arrautza jartzen dauz.
- Kanibalismoak makailaoaren elikaduran eragin zuzena dauko. Tamainu handiko makailaoek beste maikaloak jaten dabez, bere dietaren %40a suposatuz.
- Eskaera baten errakuntzagatik Jose Maria Gurtubay merkatarri bilbotarrak Ingalaterratik miloi bat makailao jaso eban, berak 120 eskatu eban. Merkataritza eragiketa hau Lehen Gerra Karlistan Bilboko setio-egoeran izateagaz bat etorri zan eta onura ugari ekarri ebazan. Bilboko bizilagunek makailaoaz elikatu ziran eta hau sukaldatzeko era ezberdinak sortu ziran.
- Harrapatutako alerik handiena 2 metroko luzera izan eban eta 96 kilo.



NATURALA EDO ARTIFIZIALA, HAUTATU EZAZU ZEURE AUKERA JASANGARRIENA

Gabonetako tradizio tipikoa da. Etxe askotan arbola erosi eta apaintzea familia giroan egiten da. Baina azken bolada hontan, jarduera gozo honek, gizartean eztabaida sortu dau... Arbola naturala ala artifiziala? Bata edo bestea aukeratzeko arrazoiak anitzak dira. Bakoitzak ingurumenean uzten dauen aztarna zein dan ezagutzea ezinbestekoa da.

Gabonetako arbola naturalak hazitegietan landatzen dira, Gabonetako produktu gisa, Arbola hauek ez datoz ebaketa ilegaletatik beraz ez dabe deforestaziorik sortzen. Horretarako erabiltzen dan lur-arloak ez dau ekiditzen ezta ordezkutzen bertoko landaratza. Landatzen diranetik salmentara ataratzen diren bitartean urteak igarotzen dira. Denbora guzti horretan oxigenoa emoten dabe. Arbola jasangarriagoa izango da hurbilean dagozan hazitegietatik badator,

horrela garraiatzerakoan ez da kutsatzen. Murueta Lorategian saltzen diran Gabonetako arbolak horren kasu dira, Zaldibarko hazitegi batetik datoz eta. Ariatza Jardines-en be jasangarriak dauko lehentasuna eta izei naturalak saltzen dabez, %100ean ekologikoak. Hauek Katalunian dagoan hazitegi batetik datoz, %100ean ingurumenagaz errespetutsua dan nekazal prozesuaren bitartez hazitakoak diran egiaztatiriagaz.



SEGURIDAD ALIMENTARIA Y SALUD AMBIENTAL

Laboratorio

Experiencia y especialización como Laboratorio Microbiológico de Análisis de Aguas y Alimentos, así como de aire interior.

Consultoría

Asesoramiento, Diseño, Aplicación y Control de Soluciones tecnológicas avanzadas.

Formación

Ofrecemos capacitación en materia Alimentaria y Ambiental para aumentar el nivel de conocimientos de las personas en sus puestos de trabajo.



Polígono Industrial San Isidro II
Idorsolo, 15 – Dpto 3.2 – 48160 Derio

Izeia Gabonetako Arbola tradizionala da, halanda be, batzuk jasangarritasunaren eta ingurumenaren alde egiteko asmoz, geure klimagaz bat datozen beste espezie batzuk erabiltzea defendatzen dabe. Horrela, hauek barriro landatzea eta bizirik irautea bermatuz. Gurbitza izan ahal da izeiren ordezkoa.

Beste aldean plastikozko arbolak dagoz. Petroleoagaz egiten dira, beraz hauek fabrikatzea kutsakorra da. Gehienak Txinan ekoizten dira beraz hauek garraiatzeko kutsatzen da. Arbola hauek urte askotan irauten dabe baina botatzerakoan ingurumenean sortzen dabeen eragina handia da. Gehienak PVCkoak dira eta ia ezinezkoa da plastiko hau birziklatzea, tratamendu espezializatua behar dauelako. Birziklatutako plastikozko arbola artifizialak fabrikatzen hasi diren arren eta nahi dogun beste erabili ahal doguzen arren, arbola artifizial batek uzten dauen karbono aztarnaren kontra egiteko, CO₂ko 40 kilo, gutxienez 12 urtez berrerabili behar dogu. Arbola mota hau, ez dira hain tradizionalak, baina etxean ez dabe zikinkeririk sortzen eta ez dira ureztatu behar.



Gabonetako arbola naturala birziklatu

Gaur egun, geure gizartean ingurumen ezagutza eta ardura handia da eta Gabonetako arbola aukeratzea erantzukizuneko erabaki zentzuduna izan beharko luke. Arbola naturala erosteak zenbait baldintza bete behar dauz. Sustraiakaz batera erosten badogu ureztatu behar da eta ahal dan heinean ez hurbildu erradiadoreetara. Gabonak amaituta, birlandatu behar da. Tamaina handiko lorontzi bat aukera ona da horretarako, lorategi baten hobeto, bertan ondo garatu eta hazi ahal da eta.



Arbolagaz zer egin ez badakigu, zenbait udaletxeek, Gernika-Lumokoa horren kasu, ezarritako bilketa puntuetara eramatea da aukera on bat. Horrela, udal langileek batuko dabez arbolak eta birlandatzeko egoera onean dagozan izeiak bereiztuko dabez. Arbolak moztuta badagoz edo hilda, konpostajea egiten da eta hau parkeak edo lorategietan ongarrri gisa erabiltzen da. Horrela, arbolak ziklo amaiera naturala eta erabilgarria izango dau.

Arbola bat zabortegi batera ez da bota behar inoiz, horrela aztarna positiboa bueltatuko dogulako: arbolak oso astiro usteltzen dira eta metanoa sortzen dabe, berotegi-efektuko gasa da hau, karbono dioxidoa baino %25 bider baino eragingarriagoa.



Gernikako merkataritza
betikoa eta gaurkotua
actual, de toda la vida



¡ARIN!!!!!!!!!!!!!!
urtea amaitzear dago!

Mahatsak, kanpaiak, konfeta...eta zapatilak, kirola egiteko zapatilak. Urtea "korrika" egiten amaitzen dabe leku askotan. Busturialdean baita be, urteari agurtzeko kirola egitea gustukoa dogu. San Silvestreko lasterketak horren adibide dira. Aisialdi osasungarria, giro ona eta solidaritatea be ekimen hauen barne dagoz eta zenbait kasutan 30 urtetik gora irauten dabe.

A benduaren 31an, mundu osoko milaka atletek euren herri edo hirietako kaleak zeharkatzen dabez urteari agur esateko, jaia eta kirola batzen dauzen ekimenean. Orain urte asko sortu zan Gabonetako Kirol ohitura hau geure eskualdean. Gernika-Lumon garai baten ospatzen zan San Silvestrea, Mundakan oraindik ospatzen da San Silvestrea, eskarmentu handikoa, 32. edizioak bete dira, eta oraintxu sortu da Bermeoko lasterketa solidarioa.

Kristau-egutegian abenduaren 31an Silvestre I Aita Santuaren heriotza gogoratzen da, 65 urte zituela. Silvestre I Eleiza Katolikoaren Aita Santua izan zan IV.mendean. Santuagaz loturarik izan barik, bakarrik data, abenduaren 31an non-nahi ospatzen dira San Silvestreko lasterketak. Helburua da urtea agurtzea kirola egiten eta lagunen artean. San Silvestreko lasterketaren jatorriari begira Erromatar Inperiora atzera egin behar dogu. Antza danez, urtarrila Jano Jainkoari zuzenduta egoan. Honek

bi aurpegi eukazan, bata zaharra, amaitzen zan urteari begira, eta bestea gaztea, heltzen zan urteari begira. Erromatarrek bere ohorez urtea agurtzeko eta barriari ongi etorria emoteko ospakizun ugari egiten ebezan. Hasiera batean, Eleizak ohitura paganoen kontra egin eban, baina geroago hauekaz bat egin eban, kristinautuz eta San Silvestre izan zan aukeratutako Santua.

Brasilgo San Pauloko San Silvestre lasterketa nazioarte mailan ohiartzun handiko da eta askok jatorria hemen dagoela uste dabe. Lehenengoz 1925ean korridu zan. Lasterketa abenduaren 31an gabaz hasten zan eta urtarrilaren 1an bukatu. Partehartzailiek argi-zuziak eramaten ebezan bidea argiztatzeko. Baina benetako jatorria Parisen dago eta urtarrilaren 1ean egiten zan. Casper Líbero kazetari brasildarrak ideia frantsesa hartu eta bere lurraldera eraman eban. Horrela, San Silvestreki zaharrena eta luzaroan segiduten dauena.

Euskadin lehenengoko San Silvestrea Galdakaon burutu zan 1961. urtean, eskarmentu handiko Vallecas madrillgo auzoko lasterketa baino arinago. Madrilekoa oso zaharra da eta herrikoa (1964. urtetik eten barik). Halanda be, Galdakaokoa 1973. urterarte etenakoa ospatu zan eta ordutik hona, jarraian ospatu da.

Bartzelona, Madril, Bilbo edo Gasteizeko zita jendetsuetatik urrun, geure herriek jaiagaz bat egiten dabe modu apalean baina ondo errotuta

Gernika-Lumo, aitzindaria

1978. urtean Gernika-Lumoko Batzokiak antulatu eban abenduaren 31ako lehen lasterketa herrikoa. Deia egunkariagaz eta herriko dendekaz batera kolaboratu eban. Eskualdeko lehen San Silvestrea izan zan.

Garaiko prentsak agertu eban lez *"Lasterketa honen lehen edizioa guztiz arrakastatsua izan da, milatik gora partaide batu dira eta Urbano Eguiluz irabazi eban, Begoña beteranoaren aurretik"*. Hurrengo urteetan antzekoa izan zan baina partaidetzaren arabera eboluzionatu eban.

Hasierako urteetan ibilbidea 11 kilometrokoa zan. Gerora txandaka korridu zan ibilbide ezberdinekaz. Maratoia, marxa edota kros herrikoa izenez ezagutzen ziran lasterketa hauek eta haurrak, gazte eta nagusiak batzen ziran bertan, emakumezko zein gizonezko kategoriakaz. 1979. urtean, bigarren edizioa egiterakoan, Deiak lasterketaren antolakuntza ona nabarmentzen eban: *"Aldagelak eta dutxak egongo dira partehartzaile guztientzat eta atletentzako istripu-asegurua eskeiniko dau antolakuntzak. Partaidetza ugaria da eta datorren domekan goizean, Gernika jai bat izango da"*.

Gernika-Lumoko San Silvestre lasterketa arrakasta handia izan arren ez zan jarraitu. Baina korritzeko zaletasuna bizirik dirau urte guztian zehar ospatzen diran lasterketa ezberdinetan. Horren kasu, milla herrikoa edota oraintxu ospatzen dan abenduko Abixadan lasterketa dira. Azken hau, orain 10 urte antolatzen dau Udal Kirol Patronatuak Mendigoizale eta Arin Arin Atletismo taldeen laguntzagaz. *"Antxinan ospatzen zan Herri Krosa edota San Silvestrea berreskuratzea izan zan asmoa, baita egiten zan mendi*



Gernika-Lumoko lehen kros herrikoiaeren kartela, 1978.

martxa be. Ordutik hona partaidetza egonkortu da eta hau meteorologiaren menpe dago, baina 400, 500 pertsona ingurukoa da", azaldu deusku Aitor Ansotegik, Gernika-Lumoko Udal Kirol Patronatoko Zuzendariak.

Mundaka, beteranoa

Mundakak 1986. urtean antolatu eban bere lehenengo San Silvestre lasterketa. Herriko kuadrilla bati bururatu zitzaion, beste leku askotan ospatzen ziran lasterketen antzera urtea agurtzeko. Oso arrakastatsua izan zan





**TRANSPORTE,
ALMACENAJE,
DISTRIBUCIÓN...**



Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika – Lumo
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es

Hubo premios en varias categorías

Más de seiscientos corredores en el III Cross popular de Gernika

GERNIKA
IV. HERRITAR IBILALDIA | **IV CROSS POPULAR**

TXIRIAR 9.000 m. (Ezpeduzteak) | IBILALDIAK (Ezpeduzteak) | OZTUAGIAK 9.000 m. (Ezpeduzteak)



SALIDA: GOIZEKO 10-etan
1981 31
ABENDUA
DICIEMBRE
INSCRIPCION: BATZOKI DE GERNIKA DE 7,30 a 9

WÁRYA EL DÍA 28
TELE: 625 1428 (Makelara: 9 - 12,30, Iratze: 3 - 6,30)
625 1008 de 7,30 a 9

ANTOLATZAILEA: BATZOKIA
LAGUNTZAILEAK: DEIA
eta Gernikako saftzaileak

MAPFRE Segurutako
etxean tikonduza egongo dira korrikotariak

SEGUROS MAPFRE



En la mañana del día 31, corredores de todas las edades participaron en el cross de Gernika.

Deia, 1981ko urtarrilaren 3a

lehenengo lasterka ha eta hurrengo urtean Udalak parte hartu eban. Ordituk hona, jarraian, abenduaren 31an, Mundakan, San Silvestrea korritzen da.

Aurton 32. edizioa ospatzen da, hasierako helburu bardinegaz: "herrian giro ona sortzea eta danak batera urtea agurtzea. San Silvestre lasterketa herriko ekimena da, herriak egindakoa eta herrirako. Herritarrek borondatez parte hartu eta laguntzen dabe. Horixe da lasterketa honen gauzarik politena. Giro familiarra eta herrikoia sortzen dogu", nabarmendu dau Arantxa Gondrak, Mundakako Udalaren Kirol Teknikariak.

Filosofia hau agerian dago ibilbide eta ordutegi ezberdinak egiterakoan, horrela partaidetza erraztuteko. Azken urteotan partaidetza 100 pertsona ingurukoa izan da. 7 urtetik 13 urtera Txiki Krossa dago, arratsaldeko 5etan, udaletxea hasiera puntua eta ardatza izanda. Nagusien Krossak, 14 urtetik gorakoentzat, lau kategoria ezberdin dauzka eta 3 kilometrokoa da. Kategoria guztietan saria dago lehenengo, bigarren eta hirugarren sailkatuarentzat. Emakumezko eta gizonezko kategorietan be sariak dagoz. Eta partehartzaile beteranoenak be jasotzen dau bere saria.

Egun horretako giro ona gehitu egin da portuko tabernek sustatutako beste kirol ekimen bategaz. Abenduaren 31an, goizez, "urteko azken bainua" antolatzen da.

TABERNA
AUZOKOA

GERNIKA-LUMO
Tel. 94 625 16 66



Ausardiaz eta umorez betetako txonboa. Bainulariek mozorrotuta sartzen dira uretara, horrela urtea agurtuz. Bainu freskoaren ondoren beroa hartzeko korrika egitea plan ona da. Herri guztia bat eginda *“urteari agur esaten deutsu itsaso eta lurratik”*.

Bermeo, solidarioa

Bermeoko San Silvestre lasterketak aurton bere bigarren edizioa beteko dau eta lasterketa solidarioa da. Eutsi Gogor Danok Batera Elkarteak antolatuta, haurren gaixotasun arraroei ahotsa emon eta Busturialdeko familia hauek batzea sustatzen dau ekimenak. Igazko Gabonetan guztiz arrakastatsua izan zan lehenengo edizioa, antolatzaileen itxaropenak gaindituz: *“Ez genekien zein izango zan erantzuna eta 500 dorsal egin genduzan. Azkenean 827 partehartzaile izatea lortu gendun. Aurton 1000etara heltzea gura dogu...Eutsi Gogor, Danok Batera gaixotasun arraroak dauzkaten haurren familia laguntza eskeintzen deutsuon elkarte da eta San Silvestreko lasterketaz gurea gorria izan gura dogu, patologia hauek agerian jartzeko. Bermeon ez zan inoiz ospatu San Silvestre lasterketa bat eta hau egitea pentsatu genduan. Urtea amaitzeko solidarioak izatea aukera ezinhobeak dalako”, nabarmendu dau Miren Lur Santiagok, Eutsi Gogor Danok Batera Elkarteak komunikazio arduradura eta ekimenen antolatzaileak.*

Espiritu integratzailea hau lasterketan be badago. Bertan familiagaz, lagun artean, bakarka..parte hartu ahal da eta izen-emotearen 3 eurokaz kolaboratu. Bermeoko San Silvestreak portuan dauko hasiera puntua eta ibilbidea egiteko aukera ezberdinak emoten dauz, 500 metro, 2 kilometro edota 4 kilometroko ibilbideekaz, familia guztiarentzat. Ausartenek ohiturakoa dan urteko azken bainuan parte hartzeko aukera daukate be Bermeon abenduaren 31an, Txirrindularitza Taldeak antolatua.

Aurton, abenduaren 31ako San Silvestre lasterketa solidarioan lortutako dirua Bermeoko Gela Egonkorrara, patologia ezberdinakotako haurrentzako, eta TEA (Trastorno del espectro autista) delakoaren guraso taldearentzat



Bermeoko lasterketa solidarioa

izango da. Azken honek, autismo maila ezberdinakotako haurrek pairatzen dabezen arazoak gizarteratu egin eta horretarako laguntza eskeintzen dau.

Eutsi Gogor Danok Batera Elkarteak 2017an jarri zan martxan Bermeon gaixotasun arraroko zenbait kasu ezagutu ziranean. Irabazi-asmorik gabeko elkarteak da eta eskualde osoari zabalik dago. Gaur egun 11 kasu dagoz Bermeo (8), Mundaka (2) eta Ajangiz (1) artean. Gaixotasunaren prozesuan Busturialdeko familiak sartzea da helburua, baita be erakundeak laguntzen barri emon; esperientziak eta informazioa partekatu; gaixotasun arraroak pairatzen dabezen seme-alaben eta bere familiaren bizi kalidatea hobetzeko baliabideak bilatu eta ikerketa sustatu edota erantzun medikoak, terapeutikoak edo bestelakoak modu eraginkorrean egokitzea.

Solidaritatea, kirola eta giro ona Busturialdean urteari agur esateko.

Arin, amaitzeaz dago!



THE WORLD'S 50 BEST RESTAURANTS AWARDS



EUROPEAN RUGBY CHALLENGE CUP



2018ko VUELTAko ETAPA



**MTV
EMA**



**Mundialak gara!
Eskerrik asko!**

 **Bizkaia**
goazen